


**BIZKAITARRAI
BIZKAIERAZ
96n. ZENBAKIA
JORRILLA
(Aprilla)
1986**



**UDABARRIA
ZUGATZAK ETA LORAK
ALDI BIZIGARRIA**

ZINTZOTASUNAREN BILLA

Bein batean, amesetan,
ez dakit zelan,
uri zabal baten erdian aurkitu nintzan.
Jendea ara ta ona, millaka, prisaka, bultzaka, alkarri musturka.
Zu ortik, ni emendik, bestea ez dakit nondik.
Nik zuri, zuk niri... danak urduri.

Kaleetan galduta nengoala,
banku-etxe bat ikusi neban.
Ate gainean TRUKE jartzen eban.
Sartu, eta kristelezko leiatillean jota, itandu neban:
– “Zintzotasuna” trukutzen da emen?
– Emen, dolarrak, liberak, markoak, pezetak trukutzen dira,
baiña “zintzotasuna” ez.
Diru mota ori ez dogu ezagutzen.

Goazen aurrera... Nora?
Or aurrean ikusten dodan “supermekatura”.
Janariak, edariak, jantziak, ontziak, tresnak...
salgai, nonai.
Saltzaille bateri itandu neutson:
– “Zintzotasuna” saltzen dozue, emen iñon?
– Parkatu, baiña... “Zintzotasuna” edo dana-dalako ori, zer da?
Janari? Edari? Emen ez dogu ikusi.
Andik be triste urten nintzan.
zintzotasuna” salgai ez egoan.

Ba-noa, kalean zear aurrera. Eskerrera? Eskumara?
Ez dakit nora.
Ate baten gainean argiak diz-diz: zuri, gorri, orlegi...
Amatau eta ixiotu, ixiotu eta amatau.
Zer ete da au?
Ikus-miñez sartu nintzan.
Barruan, musika soiñuan, jendea eta argiak dantzan.
Soiñu polita zan.
Musikalari bateri itandu neutsan:
– “Zintzotasuna” izeneko abestia ba dakizu zelan dan?
– Kantu ori ez dogu ezagutzen. Olakorik ez da emen abesten.
Dantza lekutik urten nintzan, zoratuta. Nire amesak erreta.
Nora joango? Zer egingo?
“Zintzotasuna” non aurkituko? Non erosiko?
Onetan, gaua etorri, eta dana illundu zan.
Bakarrik, tristerik... bidea galdurik, otzak illik,
nora ezean, bide gurutzean, txabola zaar bat aurkitu neban.
Atea jo, eta sartu nintzan.
Agure zaar bat, bizar luze, ule zuri bat, sutondoan egoan,
berotan.
– Gabon, aitona.
– Gabon, Jaungoikoak emon, erantzun eusten gozo-gozoro
Zerk ekarri zaitu bakartade onetara, mutil?
– Zintzotasunaren billa nabil.
Ez dakit non erosten dan. Non aurkitu neikean.
– “Zintzotasuna”, gazte, esan eustan agura zaar jakitunak,
“Zintzotasuna” ez da saltzen, ez erosten.
“Zintzotasuna” ez dago kanpoan, merkatuan edo daniza-lekuan.
“Zintzotasuna” dago gizon-emakume baktxaren barruan.
Baktxaren biotz barren-barrean.
Zergatik billa kanpoan,
daukazuna biotzean?

POZAREN LABURRA

Ondo labur gelditzen da pozaren joana.
Baliokoa ete ba ames egitea?
Aurrean dot beti larrimiñaren oiana,
azur-mamuz batea.

Ba daroat neure pena illun izoztua
satsitzerik sasitzeko bide negartian,
desespero goriko oialetan bildua,
bero gura bizian.

Gora ta bera egorik ego ba noa,
aizearen oin ezkoa uinik uin antzera;
baña, eguzkia joka datorkit, arroa,
odolak usteltzera.

Zer naizen ba? Uts-uts, amesetan dantzaria,
esnatzean, aidean doan laño emea,
lo-mordo guzurtiek kordatzeko aria,
auts errearen kea.

Izarren begiei mosuka nai neuke gora,
Egoetan bizienak narabil lur jota;
odol ustelak, bor-bor, datorkidaz agora
zotiñak be itota.

Etsipenaren uyolak basterrerratu nau,
neure gurarien erteetan nago penetan,
ur loi onek itxaropena ondatu baitau
sakoneko otzetan.

Laster baten naiz ni buztin zokillen azpira,
eguna gauaren zuloetan dan antzera.
Erioren golde ugerrak sartuko dira
zorrotz nire larrera.

A. BIDAGUREN



LEN, ORAIN ETA GERO

KONDAIRA-ARAZOA

Idazpuru ezarri doguzan iru berba oneik kondaira edo istoriara begira jarten gaitue, gaur dan kondaira edo gero koentzat izango dana.

Baiña kondaira ori bakoitxarena naiz erriarena izan dai-teke. Gaurko onetan erriarena artzen dogu gai lez, baiña ez aitzu banakakoak egiten dogula kondaira ori, banakakoak eta erriaren beragoko ainbat maillatan dagozan talde ta erakundeak. Guztientzat izango da balioko "Len, orain eta gero" azterpen apal au.

* * *

GARRANTZIA

Zer dogu maiteago edo zer da beiñago gutzat, lena, oraiña ala geroa?

Berez, gogoak alan eskatzen daualako, zarra lenari begira dago, eldua oraiñean sartuta bizi da eta gaztea da geien goroari begiratzen dautsona. Bizitza dan txalupa onetan gaztea aurrean eta aurrera begira doa, eldua erdian eta bere zeregietan eta zarra atzeko aldean eta lenari begira.

* * *

ERRI ZARRA

Gure erria erri zarra dala esaten da eta zarra izate orrek antziñakoa dala esan gura dauan neurrian egia dala esan bear.

Zalantza barik, orduan, gure erriaren tentaldia lenari begira egotea izango da.

Orrelan da gaur?

Askotarikoak bizi gara erri-barruan eta orregaitik askotariko jokabideak be: Euskalerriko gazteak ez dagoz lengoari begira eta Euskalerriko zarrak be erri barria zelakoa izan bear dan ulertzea gaitx egiten jake, lengoari begira dagoz. Eta or erdian dagozan elduak gaurko arazoai erantzun-gurean eta erantzun-eziñik ikusten doguz.

BARRIZTATZE-ALDIA

Errian, erakundeetan, Eleizan, mundu guztian, lanean naiz asti-aldietan, gaur barriztatze-aldian gagoz, zalantza barik. Orregaitik da eldu-eldu eta zarrentzat ain neketsua gure aldi au. Orrexegaitik gazteentzat poz-aldia be, baiña zori txarrez gazte asko ikusten dira eurentzat izango dan mundu au barritzen eta bideratzen alegiñik egiteko gertu ez dagozenak. Zenbat gazte igeslari edo "pasota", eta txar-rago dana, drogazale, gazteen aldi pozgarria dan onetan.

Eta zarren arazoa larriagoa da, ain maite izan dabezan erakundeak eta oiturak galtzen eta jausten ikusten dabeze-nean. Eta zarrak lengoari eutsi eta lengoa aurrera atera nai dau. Jokabide itsu ori be sarritan kaltegarri biurtzen da.

Eta elduen munduan, gizarte gauza-zale edo konsumista onek zelako ondamendia ekarri dauan, sinistu eziñeko gauzea da, naizta adin orretan asko izan bizitza osoa erri-laguntzan emoten dabenak.

* * *

INDARRAK BATU

Euskalerrriaren lena benetan gauza zoragarria da, antziñako lena naiz orantsukoa, bizi-jazokizun bizkorra ta oar-garria, Euskalerrriaren oraiña benetako barrumiña sortzen dauan ekiña et gure erriaren geroa, Europa-giro barri onetan, kontuan artzeko gauzea. Amesez beteriko eginbide ederra daukagu begien aurrean.

Eginbide onen barruan guztiok daukagu geure lekua ta geure egitekoa: Zarrak, lengoa aitzu barik, begiratu dagiela aurrera; gazteak, geroa kontuan dabela, jakin dagiela erriaren kondairea, eta elduak, zarrak eta gazteak lankide dirala, egin dagiela gaurko erria, biarkoaren oiñarri izango dan erria. Aurrera ta aurrera doazen gazteak ez dagiezela bertanbera itzi ariñeketa ori ezin egin daben zarrak, eta zarrak be itzi begoe zabal gazte arduratuai euren bide zabala.

Zar eta gazte, danak naste, goazen aurrera ta aurrera biarko erriaren elburuak lortu arte.

EIBAR'EN

Antxiñako adiskide maitea dodan Ajuria'tar Jon'ek egun baten urrutizkiñez deitu eustan. Dei au arrigarria izan jatan, aspaldiko urteetan Jon'egaz berba egiteko aukerarik izan ez dodalako eta Eibar'en bertan be noizean bein egon-bearra izan dogu baiña ez dogu izan alkar agurtzeko zori onik.

Baiña deia artu neban eta pozik artu be, adiskideen deiak artzen diran pozagaz.

Eta zer gura ete eban Jon nire adiskideak?

Eibar'en izateko zan batzar batera ni joatea eta nik an itzaldi labor bat eta luzea naiz laborra izan zeitekean alkar-izketa bat izatea. Eta batzarra baiño geitxuago be ba-zan, aspaldion euskaldunak egiten doguzanetariko apari bat, euskerea indartzeko gertatuak diran aparietariko bat. Apari onein eratzaille Aurrekoetxea'tar Txomin Lege-Biltzarkidea (parlamentarioa) eta Eusko Alderdi Jeltzalearen barruan euskerearen sailleko arduraduna da. Aspaldiko amabost urtean, azkenengo bostak alde batera itzita, lankide izan gara Zeanuri'n dan Lanbide Ikastegian genduan irakasle talde gozatsuren barruan.

Apari orretan erabiliko zan gaia, Jon'ek esan eustanez, "Euskalkien eragiña euskera estandarizatu baten bidean" izango zan. An izango ziran batuaren bidetik doazan HABE'ko Txabarri eta Eibar'egaz zer-ikusi berezia dauan Amatiño.

Euskal-Telebista be maitekiro urreratu jakun eta apari orren barria naikoa zeatz emon be bai, naizta guk esandako gauza guztiak ezin bialdu izan entzule ikusleai, erpin zorrotzaren bidez. Esaterako Bizkaitarrak arlo onetan daukaguzan euren aurkako kezka ez ziran agertu, zantzata barik astirik izan ez zalako.

Egin ziran berbaldi labor batzuk apal-aurrean. Ezin egin berbaldi luzerik, maia gertu egoala eta jateko gogoa bizi-bizi.

Iru zati izan ebazan nire berbalditxuak: Lenengoan euskalkiak bere lekuan jarri nai izan nebazan, orretarako

Eibar bera eredu lez artuta: Eibar'en izan diran ekiñaldiak aurka izan arren, ez da galdu bizkaiera. Arrate Irratiak onetan egiten dauan lana be gogoratu neban. Bigarren zatian euskalkien eragiña baturako bidean aztertu neban, euskaldi batzuk izan dabena eta beste batzuk, esaterako bizkaierak euki bearko leukela, benetako batua bearrezko izan ezkerro. Eta irugarren zatian batua bera aztertu neban labor.

Gero Txabarri jaunak egin eban bere ekitaldia: Batua-bear-izana, batua egitean izan diran eta gaur zuzendu gura diran okerrak... bizkaitarrak baiño lenago euskaldunak garala eta erri batek izkuntza bat izan bear dauala esan eban (azkeneko au nik Lebrija'rena dan gaztelera lenengo gramatika aurkitu neban antxiña eta ba-dakigu gaztelereak beste euskalkiak zapaltzen izan dauan indarra).

Bertsolari bi be izan genduzan gure mai aretan. Azpilla-ga ta Dima'ko Faustino Etxebarria. Ederrak izan ziran euren ekiñaldiak.

Gero, apal-ostean, eztabaida naiko luzea ta bizia sortu zan eta aztertu zan gairik sakonena, gaurko gazteak euskera egin dagien zer egin leiken.

Eta geiago barik, sasoiz eta giro egokia galdu barik amaitu zan Eibar'eko apari gogoangarria.

Berebilla artu eta Bermeo'ranta nentorrela olako burutasunak etorri jatazan: Batuak egindako okerkeriak ikusten dabez, bizkaiera zapalduta dagoala eta batua egikeran ez dala kontuan artu ez dabe ukatzen, eta, orduan, zergaitik ez da aldatzen giroa? Gaurko egoerak jarraitzen dauan artean Bizkaia'n euskereak atzera egingo dau, gorrotoa artuko jako... eta gero berandu izango da gorputz eder onetan izango diran zauriak osatzeko. Eta, zori txarrez, giro ori aldatzea gauza gaitxa izango da, naizta gu gertu egon bear dan beste denporan ekin eta ekin jarraitzeko.

OLAZAR'TAR MARTIN'EK

AN, OR, EMEN

1986

– Europa'n gagoz; Europa'n sartu gara "IVA" ta guzti.

– Bakearen urtea: Naziño arteko Bake Urtea. Bake egarriz bizi dan mundu onek, Bakea zelan lortu jakiteko, errien artean gizonok alkar lanean jarririk, Bakea jaristeko bear doguna azertuaz buru ta biotzez, Bake orretara garoazan ekintza bereziak egiteko urtea.

– Durango'n, Euskal Jaien Eun Urteurrena ospatzeko, ainbat jaialdi, beka, leiaketa. Urtean zear, txistu, piano, organu kontzertuak... Leiaketak... Antzerkiak, abesbatzak eta dantzariak bertokoak eta kanpokoak: Naparroa, Ipar Euzkadi'koak etab. ...

OTSAILA

– 22, larunbatean, D. Andres Mañarikua istorilariak, bere bizitza-lanagaitik emondako "Lekuona Saria" jaso Bilbo'n, Erzilla Otelean. Saria, Lekuona berak emon; mai-ko Ander Manterola, Bizkai'ko Eusko Ikaskuntza'ko Ordezkarria ta Jose Maria Makua Bizkai'ko Aldun Nagusia zirala. Durango'ko Abesbatzak esku artuaz eta lagunarteko bazkariak buruturik.

– 23, igandean, "Tejero Ikuskizuna"ren V. urteurrena: Tejero'k, 30 urteko zigorra betetzen dauan espetxean, 50.000 pezetatan saltzen ditu bere laukiak eta bere Memoriakaitik milloiak eskintzen dautsoez.

EPAILLA (MARTIA)

– Gizaldiaren lenengoetatik, gaurko egunez Emakumearen Nazioarteko Eguna ospatzen da, Emakumeak bear-bearrezko dituan bere giza-eldu duintasunaren ager-garri ta gogoragarri. Emakumea, oraindik alboratua gizar-tean; ez bakarrik "irugarren munduan", naiz eta kultura-politika mailan aspaldian, gure artean urratz aundiak egin, "emakumeak, balio erdia atarateko doble lan egin bear dau" iñoan Lopez Aranguren soziologoak. Erri aurreratuenetan dakusgunez, aurrerapena eskubidez betetzea ete da baiña bakarrik? Zeintzuk dira emakumearen elburuak?... Zein emakumerenak?... Asko zeaztu bear. Zeregin andia emakume ta gizonak!

– Amatiño'k diñonez, Cambridge'eko Unibertsidadeak 10.000 ikasle eskasegaz, Frantzia guztiak baiño Nobel Sari geiago lortu. Euskalerrri'koak iru bider ikasle geiago ditu; lizentziatu larregi gure artean. Britania Aundia'n, ikasle gitxiago eltzen da Unibertsidadera; gitxiago karre-rea amaitu eziñik geratu; oso gitxik amaitzean lanik aurkitu ez; eta oraindik gitxiago dira ez dagokien lanetan dabil-tzanak: ikasle kantidadearena gure Unibertsidadea; bestea kalidadearena: Nobel Sariak irabazten dituana.

– ERREFERENDUN EGUNA: ainbeste eztabaida, larritasun, ikusiezín sorturiko eguna amaitu da:

BAIETZAK IRABAZI ESTADU MAILAN; ostera, EZETZAK IRABAZI ASKOGAZ EUZKADI'N (BAIETZAK BIKOIZTUAZ) ETA BAITA CATALU-NYA TA CANARIAS'EN BE.

MAITENA'K

EZ DAGO AMALAKORIK

Amaren maitasuna!
Egizko da, euxe;
beste guztiak dira,
ez besterik: aize.

Gauza bat da esana,
bestea, egia.
Emon egidazu au
ta gorde berbia.

Ama umea zaintzen
arduratsu dago.
Umea dago jolas,
lupetza berago.

Umetxua jausten da
lupetza artera.
Lupetzez estaldurik
agertzen da bera.

Amak itxiko ete,
bera bertan bera?
Atara, bai, poz-pozik
bere magalera.

Asiko da musuka.
Nori? Lupetzari?
Ez. Lupetzez zikin daun
seme laztanari.

Iguin artuko dautso
lupetz zikiñari,
ta milla musu emon
ume politari.

Ta lasai dago ama
ezer egin ez baleu.
Ori ikusteagaz
gauz, arriturik geu.

Ama guztiak dira
onen antzekoak.
Danak merezi dabez
guztion txaloak.

Urteakaz umea
mutilla egin da.
Zelan ez dakigula
etor yako gatxa.

Zoritxarrez, izan be
gatxa da zitala.
Bizirik dagoala
usteltzen asi da.

Minbizia gaisoa
ta ez barrukoa.
Usteltzen ari dana
dauka kanpoko.

Asmau guztiok geinke
dala iguingarri.
Bera zaintzen dabenak
dabiltz beti larri.

Baña iguiñik ez dau
bere amarentzat.
Ez da lana gogorra
zaintzea beretzat.

Egunero birritan
garbitzen zauria,
eta beti poz-pozik.
A, bai, dau semia!

Gaisozaiñak, arrituz,
beituz, dauz, amari,
alkarri diñotsela:
"Au, bai arrigarri!"

Eta egunero au,
bape iguin barik.
Ama, samieñez, baiña
ez erakutsirik.

Eskuak palta yakuz
txaloak joteko,
t'ama, bear dan beste,
danok goresteko.

MATAI ARGINTXONA

Euskalerritik Mundura Begira

GREZI ETA EUSKERAREN BATASUNA (II)

Oroi, orain artean esan doguzanak: a): Grezi'ko izkuntza klasikuak lau elerti-izkelki ebazan: Atik-era, Dorik-era, Eolik-era, eta Jonik-era. b): Izelki bat ezagutzen ebanak beste izkelkiak errez aditzen ebazan. d): Orregaitik izkelki batean idatzia ez eben beñere beste izkelki batera aldatzen; adibidez, Eskilo'k atik-eran idatzitako antzerki bat, Peloponeso'ko antzoki batean emateko, ez eben dorik-erara aldatzen. f): Grezi'ko idazleek euskaldunok eben dorik-erara aldatzen. f): Grezi'ko idazleek euskaldunok baiño ugariago eta maizago erabili oi ebazan, bakoitzak bere izkelkian idaztean, beste izkelkietako erak eta itzak. g): Alexander Nagusiaren denboran Koiné Diálektos zeritzan "Batua" bat sortu zan, eta Koiné orrek beste izkelkiak il ebazan.

Koiné ori errez eta arin zabaldu zan Grezieraz itzegiten eben lurralde guztietara. Zergaitik ote?

* * *

— Koiné ura, greziar guztiek errez ulertzen ebelako. Guri indarrez sartu nai dauskuen "el batua" ez dau iñork ulertzen; "el batua"ren sortzailleek ere ikusi dabe ori, eta orain, "el batua"ren ordez askok "H"z zikindutako Gipuzkera ematen dauskue.

— Koiné ez yaken greziarrei arrotza iruditzen. "El batua", alderantziz, arrotza eta zatarrak iruditzen yaku euskaldunoi.

Koiné, gramatikaz Atik-era zan bereiziki, itzak berriz geienak Jonik-eratik artuak ebazan. Izan ere Atik-era eta Jonik-era bait ziran, Atik-era batez ere, Kristo-aurretiko IV mendean, geiena itzegiten ziran izkelkiak. "El batua, gramatikaz, Benaparrera da bereiziki; nunnaitik artu dauz berriz itzak: Frantzeratik, Gaztelatik Gaskoiñeratik, Laburdiera zaarretik..., euskaldunok gutxiena ezagutzen doguzan izkuntzetatik. Eta orrela, gauza parregarriak gertatu dira "El Batua"rekin: Benaparro'ko Xalbador bertsolariak, ez ebala "el batua"rik ulertzen; Euskera ongien ezagutzen daun gizonak, Lekuona zarrak, ez daula "el batua"rik ulertzen... (Irakurri eizuz, gai oni-buruz, gure "Eukaltzaindiari Epaijeta", eta "Eukaltzaindia, El Batua, y la Muerte del Euskera".—Edit. Edili, Getaria 21. Donosti).

— Koiné, munduak ezagutu dauzan garaitzarik aundienen altzoan sortu zan. Grezi'ko gudari garailleen umea zan. Garaitzaren lurriña eta usai gozoa zekarren. Garaitzaren ikurra zan. Eta ulertzeko erreza bait zan gaiñera, pozik artu eben garaitza aiekin arrotzurik aurkitzen ziran greziarrek. "El batua" ere garaitzarekin alkartu nai izan eben sortzailleek; Irauitza garaillearekin! Iraultzaren tresna, Iraultzarako izkillu izan eiten sortu euskuen "el batua", ortarako apaiz iñoxente batzuk laguntzat artuta. Eta bereala egin eban bere izkuntza ofiziala ETA'k izkera berri ori.

— Koiné Grezi'n ezartzeko ez eban iñork indarkeririk erabili. "El batua" berriz indarka eta ostikoka sartu gura dauskue. "Bizkaieran ere, ikastoletan ez ba'dozue "H"rik erabiltzen ez dozue nere diru-laguntzarik, jasoko", diño Eusko Jaurlaritzak. Jaurla-

ritza batek egin al daike ori? Nun da askatasuna? Eusko Jaurlaritzak, euskaldunei, Tebista edo Irratikuskan zer euskera gura eben itaundu, eutsen ikerketa baten bidez. Euskaldun geienak, ia ia danak, bai Bizkai'n eta bai Gipuzkoa'n "el batua"rik ez ebela nai, Baizkaiera eta Gipuzkera nai ebezela erantzun eutsoen. Baiña euskal-irratikuskek ez dau "el batua" besterik ematen. Eusko-Jaurlaritzari ez al yako bere erriaren borondateaz axolarik? Nun da demokrazia, nun erkala, "erriaren aala"?

Errez artu eben greziarrek Koiné, eta, lengo izkelkiak aztuta, Koiné utsarekin gelditu ziran. Koinek izkelkiak il ebazan. "El batua"k egingo dauna: Euskalkiak il; eta besteak baiño leenago Bizkaiera eta Zuberoera.

Grezi'n Izelkiak il ba'ziran ere, Koinek beintzat irau eban, eta irauten dau oraindik aren bilobak: Gaur-eguneko Grezierak. Euzkadi'n "el batua"k, euskalkiak ziur ilko dauz, baiña bera ez da sekulan euskotarren izkuntza izango. "El batua"rik ez da emen itzegingo. Berak ildako euskalkien ordez, "Castellanoa" itzegingo da. Euzkadi, ez da Euskalerrria izango. Gaztelerrria izango da.

Koiné bizirik gelditu zan Grezi'ko izkelkiak erail ondorean, baiña izkelkiak erailtzean, greziarrek elertirako, filosofirako eta jakintzarako izan eben gaitasun berdin-gabea erail eban. Koiné ez zan ezer aipagarriarik idatzi. Bere lanik ederrena itzulpen bat da: 70 judutar jakintsuk Ejito'ko Alexandri'n egin eben Bibliaren itzulpena. Ez dau idazle edo filosofilari aundirik Koinek: Filon Alexandri'ko judutarra, Estrabon geografo edo lutelestilaria eta Plutarko edestilaria, dira aipatuena, azkeneko au bereiziki, baiña danak Izelkietako Grezierazko idazleen aldean milla aldiz kokkorragoak. Plutarko bera ez da Erodoto, Tuzidides eta Jenofonte'ren aldera urbildu ere egiten. Koiné-idazleen neurri kokkorrean, ospetsua izan zan III mendean Tiro'ko Porfirio ere. Kristautasunaren etsai amorratua; "Kristauen Aurka", "Adversus Christianos" deritza bere idaztirik ezagunenak. Koiné idatzi eben mende ortan bertan Origenes ospetsuak ere. III mendeko idazlerik onena izan genduan bera, baiña ala're idazle baiño ospetsuagoa da milla aldiz teologilari kristaua lez. Koinek ez bait eban idazle bikaiñik izan.

"El bauta"k ere ez dazake idazle onik sortu. Ikusten dabe ori, eta aitortzen dabe ori "el batua"ren sortzailleek ere. Koinek baiño gutxiago oriandik. "El batua" ez bait da Koiné bezala berez sortutako izkera; laboratorio edo langela batean kolpeka, mailluka, astirik gabe, presaka, iraultz-izkillu izan zedin, bururik gabe, iraduz, antolatutako zatarkeri iguingarria baizik.

Guda aurretik berbizkunde oparo eder zoragarria izan eban Euskal-Elertiak, Orixe, Lizardi, Lauaxeta, eta beste aien kideko ainbat idazleei eskarrak. Gaur ez dira idazle aiek aipatu ere egiten. Orain "El batua"k elertirik gabe utziko dau Euskera; eta okerragoa dana, Euskerarik gabe utziko dau Euskalerrria. Gaztelerrri bihurturik. "Castellanerri!!!".

LATIEG'ITAR BIXENTE



EUSKERA BIZTU'ZELAN?

Ainbat urte da, berrogeitak asko, euzkera gure izkuntzaz arduratuzten asi gintzazala, beste euzko —arazo edo arlo guztietan lez eta, ordurik geiago ez gara zerbait egiten geratu, batez be euzkera-arloan, naita baten baiño geiagotan bururatu jakun alperrik ete-gabiltzan euzkeraz idatziten, bearbada gitxien batzuk baiño ez diralako benetan euzkeragaz arduratzen diranak. Esan bai ta gazteleraz idatzi be bai, euzkera piztutzeko euzkotar guztiok bultzatu bear dogula, ikasten aleginduaz eta mintzatuaz eta abar, baiña, sarri-askotan orretan bakarrik geratzen da orreita-ko askoren egin-bearra.

Baita egia da, ainbat dira aldi onetan euzkera ikasi dabenak eta azkenengo urteetan baiño geiago itz egiten dabenak baita baleiteke idatziten dabenak be, baiña, zelan-ge euzkera? Erdel-itzez nastutakoa. Ez baiña garrantzirik ez daben idazki bakan edo apaletan bakarrik, Udal-etxeetan euren eta Aldundia'ren aginduz egindako iragar-ki ta idazkun askotan be. Txarto idatzite ortatik ez dago bearbada guztiz garbi gure Euzko Jaurilaritza. Ori erriaren agin-toki guztiotan euzkera itzultzaille onak, ondo ordain-duak, dabezala... Zetarako euzkera nastuta erdel-izkelki bat lez ikusleen aurrean jarteko?

Idatzi doguna egi-egia dala ikusi nai dauanak ez dauko begiak ondo idegi ta ikusitea baiño besterik. Etorri gure erriko Udal-etxera eta bertan ikusiko ditu onelako iragar-kiak: "Registro" ikerketa edo aztarketa idatzi bearrian "Registroa". "Estadística" zenbatza edo zenbaketa idatzi bearrean "Estadistikea". "Arquitectura"-Etxegintza edo iraterti esan bearrian "Arkitektura". Endoretza esan bearrian "Alkatetza" eta abar luze bat. Ori baten baiño

ETSIPENARENA

Zer soñekoz estaliko ene etsipen au? :
Goraka ba ditut neure bi begi laburrak
t'oztaz dakusdaz goi izarren argi apurrak.
Narru gorri onen ozkarrak gogortuko nau.

Negute kolkoan samin onek gogor dirau
eta nire esperantza pitinen adarrak
bildur naiz betirako ete diren igarrak.
Biluzi onek aterpea bearrezko dau.

Baltzaren illunetan galtzerik ez dot gura
ta gau-aizkorek sailkatzerik neure enborra.
Orri berdez nai neuke goiz gorrien zerura.

Maastietako aien barrien antzera,
ardo oriz nai neuke itxarontzi mozkorra
t'etsipenak doazela bertan itotzera.

A. BIDAGUREN

sarriago esanak garala euzkera gitxi dakian gure Endore abertzaleai, zelan txarto idatzita aurkitzen diran Udal-etxeko iragarki orreik.

Euzkera piztuteko, jokabide bat baiño geiago dagoz, lenen; Euzkadi'n bizi gera guztiok, eta batez bere euzkotarrok biotzez maitatu euzkera, beste edozein izkuntza bai-zen aberatsa ta apaiña izanik, geure-geuria Euzkadi gure Aberria'ren izkuntza dalako eta, beraz, bera ikasten eta izketara beartuta gagozalako. Eta urren, euzko Udalak, Aldundiak eta Euzko Jaurilaritzak baldintza bat jarri eurak bear dituezan langilleak, jakin dagiela euzkeraz edo, gitxienez emon iru illabeteko epea ikasi dagien. Eta orretara beste lantegi geienetan be, orretara eta batez be gazte-dia, alegindu daiten euzkera ikasten.

Abertzaletzat euren buruak daukezan askoren euzkera-ganako "maitasuna" norañokoa dan orain ospatu-barri dan erri-erretxian (Referendun) ikusi dogu, askoren biotzetan guzurre dala, ba, erri-erretxi orei garrantzi geiago emon dautse euzkerari baiño. Eta, orretera izanik, ez dira ausartu EZ ipinten autarkian, NO erderazkoa ziurrago ikusi ebelako. BAI ezetariko bildur barik ipiñi dogunak, geien baten Jeltzaleak izan gara, Madrid-tarrak BAI orregaz zer egingo daben arduratu barik. Euzkera piztu nai-ba dogu, orixe egin bear dogu, norberakeriak alde batera laga ta ez bildur ez lotsabarik geure izkuntza, Euzkera, erabilli tan-kerak guztietan eta, ez norberari edo norberan erretxietara-ko bakarrik batzuek dabilen letz.

ALTUNA'TAR JOSU

Gogorregi ez Zure zigorrak?
Erdibi deustazu bekokia.
Iñoiz maiteko ez nauzun bildurrak
erdibiago naizen gutzia.

Betiko urte betedun Ori,
ume biurri bat ete zara
nire azur lokakin jostari?
Orrela bada, jarrai algara.

Baña, Jauna, kopin apurtu au
ez, arren, ezerezera baster,
Zugaz eskero, jolas gura dau,
naiz zilborretik serrauntsak ager.

A. BIDAGUREN

ADI-ERAZTEKOA

Bizkaiko Foru Aldundiak eta Kultur Sailak euskeraren aldeko antolatu daberen egitarauan gauza eder, zuzen eta egokiak esaten dabez edo niretzat olakoak dira beñipein.

Orreitariko batzuk olan esaten dabe:

“Gure izkuntza euskaldunen ardurea dala; edozein lekutan esan bear dogula, bakoitzak bere eraz erabili bear; ez dakienak ikasi bear dabela eta dakienak beti erabiltzeko”.

Baina orretaz nik ezer esatekorik be badaukat. Bizkaiko Foru Aldundiak eta Kultur Saillak, garrantzizko gauza bat jakin bear dabe: Bizkaiko erri euskaldunetan, sendiak, jaio diranetik euskeraz egiten dabe, baina aurrei eskolara-ko edo ikastolarako adiña elduten jakenean, gero ta euske-raz gitxiago editen dabe, etxeetan batez be.

Ni orretaz konturatu nintzan eta gazte batzuei zergaitia itandu neutsen. Arriturik geratu nintzan auxe entzutean:

“Euskerea ondo ez dogulako ezagutzen, ez dogu egiten.” —Baiña gazteok zer diñozue? Zuek euskaldunak

jaiotzez ezanik, eta olako tentelkeria esaten? Zein izkuntzatan berba egin dozue beti?— itandu neutsen nik.

—Bai geurean, baiña gure maixuek, au ez dala euskera diñoskue, etzekoa baiño eta guk, ain txarto ez esateko eta eskolako etzekoagaz ez nastautzeko, erderaz egiten dogu ostantzean ez doguz asterketak gaudituko.

Onek zorakeri bat dirudi baiña egi utsa da zoritxarrez, eta ez da leku baten edo erri baten jazo, askotan baiño.

Zer esango dautsezue astokeri ori egiten dagozanei? Konturatzen zarie euskera batu orrek, euskaldunei egiten dautsen kalteaz? Erdel errietan euskaldun barriak sortzen diran bitartean, erri euskaldunak erdel dun biurtzen dira. Nora goaz bide orretatik? Ze asmo darabil lan orren azpian? Zergaitik kentzen jaku Bizkaitarrei geure Bizkaiera ikasteko eskubidea?

PALMI

BAKOITZKERIA

Urrunago. Geroago ta, urrun-urrunago,
bakarti bizi gara auzokoak izan-arren;
urrun bizi gara, bai etzeko, bai auzoko,
bakoitzkerizko barruti norbereko baten.

Itxurazko lagun, itxurazko adizkide,
erosokerizko aurrerapenen artean;
bakoitza bere buruaren lagun ta senide,
—otz eta motz—, gizarteko artu-emonean.

Irripar dagitzut ta, irripar dagidazu
ta, bakezko deituraz, jakintsuak, jo ta ke,
erriogalluak asmatzen erne dabiltz, itsu.

Batiko lez, gure lurra autserretuz gero,
gizonak obeago izatea ba-leiteke...
baña, jakin-min ibilko dira zer zan leno.

MINIATEGI-TAR SABIN

Saldu gaitue geure anaiak
bizkaiko izkera zapaltzen
geure-geurea kenduten guraz
ta sasi-euskera asmatzen.

Jagi gaitzean danok borrokan!
bizkaieraz berba egiten
naiz eta oraingo sasi maixuek
euskera ez dala esaten.

Aizue gazteok! Danok gudari!
geure bizkaiera zaintzen
ez bildur izan, izan zaiteze
semetxo onak berba egiten.

PALMIK

ARROKERIA.

GOIRIA

Gizartean dakusguzan zoritxarrik geienak arrokeriak sortu-eraziak dira. Arrokeria gizona aña zaarra da. Gizona munduan agertu zanean agertu zan arrokeria be. Egun berean. Gizonak bere izatean agertu daroa arrokeria. Bere izatean andikeri-guraria. Griña zital au beragaz batera iaio zan. Adin batekoak dira ba.

Kalte asko ta andiak ekarri dautsoz arrokeriak gizonari.

Kristok ainbat bider eta gogorkiro gaiztetsi eban arrokeria. Alegi ederra jarri eban parisaitar eta publikaitarraren irudipean. Eta Berak bezala ainbat gizon argik gaiztetsi dabe gizaldi guztietan.

Arrokeriak ontzat artzen dauz bide guztiak gizartean lenengo maillak lortezko.

Arrokeriak ainbat negar-malko ixuri-eragiten dauz gizonen begietatik.

Ainbat odol-ixuri-erazi munduan. Ainbat burruka ta guda sortu-erazi.

Pekatuaren oiñarria arrokeria da (Leon Luis Aitak).

Arrokeriak dagitse bultz gizonai goraltzak billatzera (Raimundo Lulio).

Ant andia dabe arrokeriak eta koldarkeriak (Amiel).

Gizon arroak ez dauka adiskiderik, guzurti labanak bai ostera. Ondasunak galtzerakoan bakarrik itxiko dabe (Baron de Holbach).

Arrokeria gexotasun guztien iturri da, bigurri gutien iturri dalako (Agustin doneak).

Arrokeriak burua galdu-erazten dautso gizonari enparauak ezetsiaz (Baron de Holbach).

Arrokeria ezjakiñaren ondorea da (Fontenelle).

Ezer ez apalagaz artoa izate baiño iguingarriagorik (Seneka).

LIBURU BARRIAK

AITA ONAINDIA



NERE BASERRIA

Aita Santi Onaindia'k idatzia, olerki liburua eta olerkiak abesteko doiñua be esanda. Lau urte-aroak aztertzen dauz.



Ezaguna da ipuin onein I zatia, ezaguna ta askok irakurria. Beobide'tar Jose Luis aitak batuak dira eta EUSKERAZALEAK ALKARTEA'k argitaratuak. Oraingo onetan GOIRI'tar Piarren margo ederrakaz apainduta.

HOMERO



ODISEA

Elertian izan dan poemarik entzutetsuena, Omero Grezia'tarrak idatzia eta Aita Santi Onaindiak euskertua.



Liburu irakurgarria bentan, Teresio Elorrieta Aita karmeldarrak idatzia.



Eres-zale ta euskalzale guztiak irakurri bear leukeen liburua da. Erderaz G. Ferrero'tar Jose Aita'k idatzi eban, baiña askoz laburrago. Maria'ren Biotz-Semeen eta batez be Iruarrizaga'tar Kreszentzio aitaren laguntzaz agiri ta jakingarri barrriak sartu dira eta Olazar'tar Martin'ek euskeratu dau liburu eder au.

AITA TERESIO ELORRIETA, OLERKARI

Gauza guztietarako, nik uste, giroa bear da, bai ereiteko, bai maitatzeko eta bai ilteko. Zerbaiten gertakuntza da giroa: lurra ereiteko, biotza maite izateko ta gogoa —lurraz aspertzean— ilteko.

Zer adierazo nai dot onegaz? Eder-lanak, olerkiak osotzeko be giroa bear dala. Besteak beste ta gaurko egoerari ezer kendu barik, gerra aurreko denporak naiko girotuak zirala olerkigintzarako be; gizkunde egunak genduzan, arnasa aundiz jokatu gurezko egunak. Eta zenbaitek, albokoa ikusiz olerkigille ta goi-zaletua, berak be luma atz-arteratuz oler-laneri ekiten eutson. Labur: alkar sustatu egin oi genduan.

Onakoxea dozu Aita Teresio karmeldarra be, oraintsu il aurretik liburu interesgarri bat —“Mendatako Profeta”— eskiñi daukuna, eta gaztetan, gerra aurretik, “Karmengo Argia”-n olerkiak be idazten ebazana.

Bizitza

Gai oni astiñaldi barririk emoteko asti bage, irakur eizu nik aitaturiko liburuari ipiñiriko itzaurre zati bat.

“Idazti a mataza egin dauana —diñot—, ez dozu edozein. Ba dau sasi ixetuaren garra gogo barruan. Ogei bat urtegaz Peru’ra joanda, an bizi izan zan Aita Teresio, Jau-naren maastian lanari lotuta, bere bizitzaldiko egun eta urte luze ederrenetan. Euskalerrira itzulita, emen be etzan geldirik egon. Izatez langille danak, nun-nai aurkitu, izan-go dau zeri eskua ezarri.

Ikuspegi ori baiña albora itxirik, Aita Elorrieta karmeldarrak ba dau, liburu oni dagokionez, sail bikain txalogarria. Liburu bat mamindu dauku, esku artean daukazun idazti au berak osotua dozu milla gauza bitxi jakingarriz jantzia.

Au ezdautzu edonok egiten, jaiot-lurretik ez ur bizi izanak batez be. Berezko sua bear da ortarako, izateak berak itsastan dauskun arnasa ta sua. Ori izan eban Aita karmeldarrak. Amaren altzotik ekian euskeraz, gero Larrea’n eta Markiña’n irakasle onak eraginda, sakon ikasi ta Pazifik-itxas ertzean be ondo zaindu ta landua.

Emengo gerra aurretxoan, andik, Peru’tik bialtzen zituan euskerazko lanak, itz-lauz ta poesiz, emen Larrea’n

argitaratzen zan “Karmen’go Argia” aldizkarira. Eta, jakiña, gaztetan gozo edoskia ta ondoren maitez landua, dala izkuntza naiz dala lur-txera, ez dira errezko lur-antzpera jausten.

Euskaldun seme-alabak errez aurkitu oi doguz, erbestean urte-mordotxo bat eginda, barriro Euskalerriratzean, lau berba euskeraz esan eziñik dabilzanak. Zergaitik ori? Euren erantzuna: “Aztu egin jat; ez dot euki nogaz itz-egiñik”. Kako-mako ta maratilla merkeak; lur-gaiñeko orbel illak, nagiaeren esan suster bakoak. Oba mingaiña geldi euki, olakoak bota baiño.

Mendata’n jaio zan Pedro Elorrieta Zenikaonaindia —Aita Teresio tarmeldar Ordenan—, Manuel eta Segunda’gandik, 1910’ko urtarrillaren 8’an. Larrako karmeldar Ikastetxean latin eta onen inguruko gaiak ikasi ondoren, emen berton artu eban 1925’ko garagarrillaren 9’an karmeldar jantzia, urrengo urtean garagarrillaren 10’an profesia egiñik. Markiña’n edertiak eta asketika eta Gasteiz’en Filosofia ta Letrak ikasi ostean, Errepublika zal-ta, bere ikaskide guztiakaz Ameriketara joan bearra izan eban, Lenengo Txile’ko Txillan’en eta gero Peru’n auren eleiz-ikasketak amaiturik. Emen apaiztu zan Teresio, Lima’n meza barria emonik 1933’ko urtarrillaren 22’an.

Mixiolari sutsu, aspertu barik eta ardura aundiz lanari ekin eutson Peru’ko karmeldar komentuetan. Nagusiak lenengotan San Pedro de Lloc’era baildu eben, eta an daukagu 1936’an bere ikaskide Balentin Abasolo Igorrekoagaz. Gero Chocope, Trujillo ta Arequipa’n lan egin eban, ia beti lekaretxe oneitako nagusi.

Berrogei bat urte erbestean egiñik, Euskalerrian daukagu barriro be, Altzo’ko nagusi lenengo ta 1975’tik Santander’ko Hoz de Anero’n karmeldar Eremuan kargu bardiñagaz; bere nagusitzako iru urteak amaituta gero be bertan bakartade orretan bizi izan zan zati batean, baiña biotzetik txarto ebillela-ta, Kalahorra’ra aldatu zan, osasun billa.Sei bat urte antxiñako euskal erri-txuntxur aretan igarro ondoren, 1985’ko abenduaren 4’an Jainkoaren eskuetan itxi eban bere arnasa, egunean bertan aren arimearen alde illeta gogotsuak ospatuz.

Goian bego Aita Teresio, karmeldar lekaide on, langille ta euskaldun sutsua.

Olerkari

Autortu dogunez, Aita Teresio'k euskeraz berba egiten eban andik ebiltzan euskaldunakaz eta noiztik noizera ona etorten zanean, emengoakaz. Eta idatzi, prosaz ta itz-neurtuz, emengo aldizkarietan. Orrez gaiñ, baita burutu be aspalditik barruan ernemin ebilkion asmoa: "Mendatako Profeta". Bere sendikoa zan profeta au, ezta beraz arritzekoa.

Taiuz eta zentzunez osotuta dago liburua. Nobela lez irakurten dana dozu, getakizun, jazoera ta zeaztasun txanbeliñez jantzia. Eulalio Intxausti Gomeztegi dozu beronen ardatz interesgarri. Au egun baten Kortezubi'tik gabaz etxerantz etorrela, ezezagun bategaz aurkitu zan bidean, Mendataraiño lagundu eutsona; bidazti arek ainbat eta ainbat gauza eragarri eutsozan, gero gerra aurretik, gerra

bitartean eta gerra ostean naikoa zeatz bete ziranak. Bideko esanok —Intxausti'k ez ekian nok esan eutsozanik— izan ziran Eulalio mendatarraren iragarkiak, berak eta beste batzuk inguruetan zabalduak.

Iragarkiok polito bete ziran. Aita Teresio'k, barriz, bizi-bizi jarten ditu garra denporako milla jazokun —eriotza, zigortze, gose, zalaparta— arrigarriz aberasturik. Atsegiñez irakurten dan liburua, garai aretako gauzen jakin-miñez irakurtera ezkeru.

Gaiñerakoan olerkari dogu Aita Teresio. Ez euskun, egian autortzeko, askorik idatzi neurtitzez, baiña gerora astirik izan ez ba'eban be, gaztetan orretan jarduna genduan. Emen dozu, irakuele, nik neure poesi-bilduma "Milla Euskal Olerki Eder" liburuan batu nebana (752 or.). "Aurraren eriotza" deritxo.

Arrats illuna. Geldiro jausten
edurra, oparo.
Norbait itun ta bekoki motzez
auzotik igaro.

Arkaitz orpoko etxe zarrean
jazokun larria!
Alargunaren seme bakarra,
ai!, otzak dariola!

Izadi dana ixillik dago,
ez dantzut an pozik...
Aman altzoan aur gizajoa
otzez dakust illik!...

Ezpanak ditu erdi zabalik,
laru ta tximurrik;
Soin ta arpegia, ezko antzera;
begiak, leiturik.

Txorikuma illa abian legez
otz eta bakarrik,
Altzoan dauka amak seme illa.
Bai dala negarrik!

Leiotik argi epel-motela
sartu da gelara...
Oin be, amaren begi tartian,
bai dakust negarra.

Aurran gotzonak gela-leioa
zarrast dau zabaldu;
Gotzontxu biak, laiño artetik,
donokira sartu.

Amak, maitero, bular ganean
gorputza estutu,
Mosuz, negar ta zotiñez illa
nai ba'leu lez biztu.

Zortzi aapaldiok olerkari gazte asi-barri batenak dozuz. Baiña ez dagoz txarto. Lantxo bat, bi edo irutik errez eza-gutu oi da nor dan egiazko koplari ta nor dan sasi-bertsoak saltzen dauskuzuna. Onek, mamiñari begituz, ba-dau aragia ta azurra, ba-dau mamin dotorea: ama alarguna, seme bakarra, illik, bespotan dauala. Mamin unkigarrria! Eta azala? Egitura atsegiña dauko: 5/5 - 6. 5/5, - 6. 5/5 - 6, eta 5/5, - 6. Euskal metrikaz, euskal poesiari egokion neurkeraz jakina zan egillea. Eta olerki-neurkera ez

jakon, iñolaz, be, zoztor, ez eragozpen bere oldozkun eta pentsamentuak, eta biotzaren zauskadak bete-betea adierazteko.

Pazifikoko aldeko arima-zaintzak ez eutson itxi astirik itzak euskeraz neurtzen jarduteko; bestelan, beta izan ba'leu ta ortarako bear dan giroa, Aita Teresio, Mendata'ko beste batzuk lez, poeta izango zan, eta ez txikia.

OLERKIAK

ZAPI ETA ZIPI

ZAPI eta ZIPI

Katu bat etxera etorri jaku.
Nongoama dan? Norena dan? Ez dakigu.
Zein izen emongo deusagu?

Senarrak. ZAPI.

Emazteak. ZIPI.

Senarrak. Etxean neu naz nagusi.
Katuaren izena ZAPI.

Emazteak. Zoaz ortik! Gizon agintari,
mozkortitzar ori!
Katuaren izena ZIPI.

Senarrak. Au emakume galdua.

Emazteak. Gizon, morokil kaikua.

Senarrak. Atso, barritsu zatarra.

Emazteak. Ara! Ijitoen asto zarra.

Senarrak. Ixildu zaitez, bestela joko zaitut buruan.

Emazteak. Asto guztiak ez dagoz okolluan.

Zapi eta zipi. Zipi eta zapi.
Asi dira burruka, atzamarka, musturka,
alkarri mokoka.

Ezin akordio. Laster dibortzio.
Zergatik?
Katuaren izenagatik?
Zuk ala uste?

Ez.
Ez dabe alkar maite.

MAITASUN ESKOLAN

Patxi, erretzaille amorratua.
Agoan beti zigarrua.
Alako batean etxean sua.
Norena ote da errua?

Emazteak. Ai! Patxi, Patxi, zer egin dozu?
Etxea erre dozu!!!
Orain gu non biziko gara?
Nora joango? Nora?

Senarrak. Eutsi, emazte maite, biotzez,
etxea errearen ordeztu, mosutxo bat,
gozoena, samurrena, maitagarriena, zure-
tzat.
Eutsi, beste bat.

Emazteak. Senar bedeinkatua,
Zuk ez dozu erre etxea.
Pekatua ez da zurea.
Tabakoak dauka errua.
Tabako madarikatua!!!

Senarrak. Laztana, kutuna, zeru-lurren zoriona!
Ez negarrik egin, ez kezkatu...
Mendian zotzak batu
eta etxe barri bat
egingo dogu biontzat...
Atea zillarrezkoa,
teillatua urre-gorritzkoa.

Emazteak. Eta leioak?

Senarrak. Leioak, zure begi zeru-urdin antzekoak.

Emazteak. Ene senartxo, ago-zuri, koipetsu,
olako gauzak esaten non ikasi dozu?

Senarrak. Non ikasi dodan?
MAITASUN eskolan.

GOIKOETXEA'TAR INAKI

LAU URTEKO NEURE IBILLERAK (XIV)

Gauza kontagarri gitxi eukan Cardeña'ko bizimoduak. Goizetan, lagun bakarrak jotako goiz-eresiak esnatzen induzan. Ba-eukam zaletasuna musikariak eta eresi politak joten zituan. Ain zuzen be, gure lagundikoa zan eta sarritan ikusten neban besapean musikea eukala.

Ez naz gomutaten goizetan ikurriña jasotera joaten giñanik; ezta gosaririk izaten bagenduan bere. Izango genduan ziur. Illuntzean bai, illuntzean joaten giñan ikurriña erastera ta ereserkiak abestuten genduzala uste dot. Ez dakit lotarako agindu edo deiren bat izaten genduan ala bakotxak nai genduanean joaten giñan. Guretako bat izaten zan zaintzaille edo imajinaria egiten ebana ta bardin egunez be. Niri egunez gertau jatan zeregin ori egitea. Egunezkoak, sarjento edo ofizialen bat etorreanean barrura deitu bear eben:

— Compañía: Sarjento! (edo zana zalakoa).

An nengoan ni estu-estu malladietara zelateka, bai arpegi eta bai euren graduz gitxi ezagutzen nituan-da. Ta alako baten, an etorren bat. Nik orduan al neban indar guztiakaz deitu neban, baiña batetik abost sendoa ez eta besetik ango berbotsa andia izaten zalako, ate ondoko batzuk ez ebben entzun (urrunekoak sekula ez eben entzuten baiña zerbait jazoten zala laster konturatzen ziran) eta jolasean, saltoka-edo, atrapau zituan sarjentoak. Ta agirika asi jaken. Eurak, orduan, nik ez nebala deitu esan eben eta sarjentoak baietz, berak be entzun ebala-ta. Ta zigorren bat ipiñi eutsen. Ez naz gomutaten zer zan zigorra baiña edozelan be ez zan dandi izango.

Monasterio edo lekaretxe arek elizea eukan, jakiña! Ta igande ta jaietan mezea entzutera eroaten ginduezan danok. Lenago entzuteko oiturarik ez eukenak be derriorean entzun bear izaten eben. Eliza a atxillotuentzat iragi arte, ziur, urte askoan itxita egongo zan eta busti edo kare usaiñ andia eukan. Bere usaiñak Prantzia'ko Bouridens'koa burura ekarten eustan.

Lenago esan dodan lez, gu, batera sartu giñan aldarakook, ate ondoan geratu giñan. Gure ondoko aldran, orduan ain ospetsua zan Berrendero txirindularia egoan. Ta ni neure aldarako ezkerren eta bera bere aldarako eskumaren gengoan eta alkar jotene lo egin genduan iru-lau egunean. Baiña ez genduan sekula berbatxu batik be egin alkarregaz. Ez geunkan eurakaz artu-emonik.

Egun aretako baten, atxilloturik egozan kirolzale edo deportisten gaiñean zerbait ekarri eben izparringiak. Zera, kirolari biztualdia emoteko, ezer txarrik egin ez eben edo euren aurka ezetan nabarmendu ez ziran kirolzaliai askatasuna emotea, ondo etorriko zala. Baiña zerbait akats billatzen eutsen edo askatu bear ez ziranen artean eredu lez Berrendero aitatzen eban, bera bakarrik.

Aldra aretako batek bestera ulertzen eban izparringiak ziñoana ta Berrendero'ri zorionak emonaz bein eta barriro albistea irakurten eban. Baiña Berrendero'k, izparringiak ziñoana, zan lez ulertzen eban-edo, beintzat beste aren esan eta koplak ez eben poztuten. Berba batik ez eban urten bere aotik.

Euren okerra zuzentzea txirindulariarentzat pozgarria izan balitz, argituko neutsen izparringiak ziñoana baiña alderantzira zan eta ez neutsen jaramonik egin.

Gero, barrurago emon euskuen gure lo tokia ta ez dakit geiago ikusi ete neban bera.

Modu ta mailla guztietako gizonak arkitzen ziran an. Batek katedratikoa zala esaten eban. Ondo jantzita, gaban urdiñagaz eta betaurreko dotoreakaz. Bandoliña jotene ekian eta baten jo egin eban. Ez egoan beretzat ezer berezitasunik. Gu lez an joan bear izaten eban jateko billa, eskuan platertxo ebala, besteakaz batera lerroan jarrita. Inteletualak eta gogo edo ispiritu kontuari emonak diranak be gosez dagozanean, sabel zorria itotea izaten dabe lenengoa.

Beste bat, gaztea bera, bere ezkongaiagaz itsututakoren bat zan. Egunero idazten eutsan eta ugari gaiñera; bi edo iru orri beteten zituan. Erantzuna be sarri izaten eban. Olan bada, eskutitzak eskuan zituala egun guztian ikusten genduan. Olerkari erromantikuren bat izango zan. Gizon ikasia zan.

Baten, norbaiten inguruan jendea batzen zala ikusi neban eta zer ete zan, neu be bertara urreratu nintzan. Zatotik ardaa edaten ziarduan bat zan; baiña ez oiturea dan lez zatotik aora. Jarioa bekokira jaurtiten eban lenengo, gero sudur puntatik ezpaneaz zear aora zuzenduteko. Gero jakin nebanez, Tximista ondarrabi-irundar ostikalari zan. Aldarte oneko mutilla; guztiz errikoia edo popularra zala bere errian esan eusten. Ta alantxe zan, gero, neure ezkontzea zala-ta bide alderdi aretan naikoa ibilteko erea izan neban-da, jakin nebanez. Basurko bertsolariaren koiñatua zan.

GUDALDIN

Trabajadorietan egin genduzan aruntz-onuntz guztietan alkarregaz gertau giñan eta lagun egin giñan.

Cardeña'n iru-lau aste egin genduzan. Lekaretxe a dana ustu bear zala entzun genduan eta danok Miranda'ra aldatu ginduezan. Atzerritarrak Miranda'ra ala beste norabaitera eroan ete zituen ez naz gomutaten; baiña ez dot uste erri ontara eroan zituenik.

Cardeñas'tik Burgos'era oiñez mendi edo zelaian zear eroan ginduezan. Ez jakun erreza izan ainbat bidean geure trepetxoak eroatea. Burgos'tik Miranda'rakoa bultzian egin genduan.

Miranda'ko konzentraziñoi kanpoa atxillotuenizat bereziki egiña zan. Toki lauan erritik kanpora egoan; alderdi baten ibaia eban eta besteñ bultzit bidea.

Ogei bat neurkin luze ta sei bat zabaleko txabola pilloa egoan. Beia olezkoa eben eta alboak, lotarako, arrabete inguru gorago zituan.

Illuntzea baiño lentxoago eldu giñan bertara. Biaramonean izan neban lenengo estropozua. Beno, lenengoa ta azkena.

Eguerdiari bazkaria artzera deitu euskuen. Berrogetamar neurkiñetik gora luze ziran iru-lau lerro gizon gengozan perola edo jaki ontzien aurrean. Gu atze samar giñoiazanak, ara aurrera sekula elduko ez ete giñan kezka. Jatekoa artutako asko perolen ondoan geratzen ziran, danak artutakoan ezer geratzen bazan zerbait geiagoren naian, ango itzez esanda, erregantxearen zain. Orregaitik tokirik ez eben izten, artuaz etozanak andik alde egin eien.

Gu peroletara urreratu giñanean sarjento besomoz bat didarka ebillen, artutakoak andik alde egiteko esanaz, besteak bere tokia eukiteko. Baiña iñok ez eutsen jaramonik egiten; ta nik jatekoa artu ta bereala ta platera esku biakaz elduta neukala, artu eban idizilla bere esku bakarrean eta zirt! eta zart! bizkarrekoak emoten asi zan eta neuri be ederra emon eustan. Baiña jende moltso andia zan eta ez zan errez andik alde egiterik. Lenengoan, jendea, zearka ezkerretik eskumara joanaz jo eban eta gero eskumatik ezkerreara joanaz; ta bigarrean be atrapau egin ninduan. Orduan, jaurti neban jatekoa ta plater utsari esku bategaz eldurik, katua gaiñera datorkiola ikustean sagua edonun eskutatzen dan lez neuk bere nunbait tarte arkitu neban eta iges egin neban andik. Lepoko (bizkarreko) otza kentzeko azartada bi bere naikoa ziran eta ez neban nai irugarrenik. Naiago neban ezer jan barik geratu.

Egia, ezer jan barik ez giñan geratuko, etxetik bialduta-ko zerbait beti geunkan maletan da. Ango jatekoak be

Cardeña'koen antzekoak ziran; ezin nintzan oitu edozelan egindako jateko areikaz.

Ez naz gomutaten ango aparia jatera jarri ete nintzan an egon nintzan denporan. Beintzat, baten, artuta, gero beste bati emon neutsana gogoan daukat. Platera bete artu neban baiña aorik iragiteko gogorik ez eustan emoten jateko arek eta ordura arte sekula barbarik egin ez neutsan donostiar erdaldun gazte bat neukan alboan eta itxura oneko mutilla zanez, neuk nai ez neban jakia ezkeintzea bear bada ez ebala ondo artuko, ta bildurrez eskeiñi neutsan; ikuturik egin barik neukala ta ea nai eban. Pozik artu eustan.

Ta "donostiarra" berbea aitatu dodanean beste donostiar bat datorkit burura. Geure barrakakoa zan, amazortzi urteko mutil gaztea. Zortzi abizenak euskerazkoak zituala esaten arrò-arro ibiltzen zan, ta danak aitatzen zituan; baiña gizajoak tautik ez ekian euskeraz.

Euskerea ez jakite a, nik uste dot, berea baiño gurasoen errua geiago izango zala. Edozela bere, berak be ust a geroruntz zuzentzen zerbait aleginduko zala uste dot bes-telan zegaz arrotu gitxi eban.

Ango altaboza neuri deika egon zala esan eusten baten ezagutzen ninduenak. Zetarako ete zan kezkatan jarri nintzan. Edozelan be ezer txarraren bildurrik ez neukan. Ona geiago itxaroten neban. Ta joan nintzan. Iturri donostiar tenientea zan deitu eustana ta bereala bere aurrean nengoan. Nungoa nintzan eta abar itaunak egiten asi jatan. Ba-nekian nundik etorren kontua. Teodoro'k, iñoiz, gudari aren ixiko alargunaz berba egin eustan, euren dendara, oraingo Gantxegi'nera joatean ezagututa. Gure ixiko Prantziska ibilliko zan an Iturri'ren bitartez zerbait gutzako lortu naian.

Ez nintzala ni donostiarra erantzun neutsan teniente ari; lengusuak zirala donostiarra edo an bizi ziranak, beintzat, eta bere ixiko ezagutzen ebenak, ta nai baeban deituko neutsela ta eroango nituala bere aurrera. Ez eustan baieztzik esan. Ez neban ezer onik beragandik atara. Guri mesede egiten asteko aiña artu —emonik bere ixikogaz ez geunkala konturatu zan kontixu.

Bein jazoera polit baten tarteko izan nintzan.

Egunero, goizetan, ikurriña jasotea izaten zan eta bertan, orduko giroan asko entzuten ziran abestiak abestuten genduzan. Ez dakit zegaitik izaten zan baiña beti azkenetan eroaten ginduezan gure barrakakoak zeregin orretara ta kanporen geratzen giñan ikurriñak jasoten ziran toki zabal aretan.

Ango egitekoa amaitzen zanean, an egoten ziran morroiak, prest, lagun pilloa patatak zuritzera eroateko. Jendea aukeratzen, ez eban burua asko nekatzen sarjentuak. Urreen egozanak bialtzen zituan; eta gu beti antxe urrean geratzen giñan eta sarri giñan patatak zuritzeko. Ta jendea aspertu egin zan ia egunero geu joaten; ta nik ez neban ezer jakin baiña ez joatea-edo, erabagi eben. Ta egun baten ikurriña jaso ta abestiak amaituta patatak zuritzera garoezala, geure barraka ondora eltzean, bat batean igesi asi zan taldeko pillo bat, batzuk alde batera ta besteak bestera. Ta geratu giñanak, sukaldera patatak

zuritzera. Beste bein bere olan jaso zan. Pozik egozan iges egiten ebenak. Baiña baten, sarritan lez geu autatu ginduezan aitaturako lan orretarako ta ba-garoez morroiak alboan genduzala ta orduan bere bat-batean iges egiten asi ziran betikoak; baiña zaintzailleak be ez etozan lo ta esku-tauta erozan idizillak atara zituen eta "zirt eta zart" jan atara zan zaparradea! ¡Zaplada ederrik emon eben!

Egun aretan amaitu ziran iges egiteak.

KAMINAZPI

EUSKALERRIAN EUSKERAZ

EUSKERAZALEAK
1985-86 IKASTAROA

AMAZAZPIGARRENA

BIZKAIERAZ

IRU MAILLA ETA ALKARRIZKETA

EGUNAK: ASTELEN, EGUASTEN ETA BARIKUETAN

EDO ASTEARTE ETA EGUENETAN

ORDUAK: GOIZ, ARRATSALDE ETA GABETAN

ORDANA: 7.000 peseta.

IZENA EMOTeko-TOKIA: EUSKERAZALEAK

COLON DE LARREATEGI, 14-2

BILBO.

URRUZTIZKIA 423.53.22

NORBERT'ERI ZORIONAZ



Zure guraria kezkatuta daukazu: Zure bizitza gozamen argitsua ala gau ikaragarria izatea gura dozu?

Zure gurasoak eta anai-arrebak begiratzen dozuzenean, bear ba'da, olako zerbait esango dozu zeure barruan: Oneik ez dira txiro ta gizajo batzuk baiño, ez dautse bizitzeari gauza aundirik eskatzen; neguan etxea bero euki ezkeru, jateko bear daben beste janari ba'dauke, euren alogora auzokoarena baiño aundixuagoa izan ezkeru eta etxeko oiñetako bero batzuk ba'daukez zoriontsuak dira.

Baiña zuk beste era batera begiratu zeinskiet zure etxe-koai; eurentzat erreza izan ez arren era barri ori egokia dala ulertzea. Au, izan be, bizizaren azkenean baiño argitu ezin izango dan gauzea da.

Zure etxe-koak jauntxu-antze-koak izan arren edo "burges" eskuzuri lez zure aurrean agertu arren, emen eta orain bizitzeari zoriontasunik ez dautsoela eskatzen pentsaterik ez daukazu; eroapena, zentzumena eta adorea lortzen dabe eguneroko bizitzarako, bide luze ta autsez beteriko baten dabiltzala zuk iste izan arren. Ez dabe eskatzen oraingoz egizkoa ta osoa dan zorionik, ez eta benetako izena daukan bizitza atseginiik, ori etorkizunerako itxaroten dabe. Zorion txiki eta une batekoa ukatzen dakie eta mundu onetan ikusten dabezan uts-egiteak ez dautse kentzen euren arloan jarritzeko gogo. Eurak ez dabe billatzen euren arloan jarritzeko gogo. Eurak ez dabe billa-eta gitxiago zuk oiñarria ipinten dautsozun lekuan sendotzen dan zoriona, geiekeri ta neurribakokerietan oiñarritzen dana.

Nik ba-dakik diñotzudan au burubide utsezko gogoaldi bat lez agertu jatzuna, ba-dakik abadeen berbaldi oiturazko baten antzera zure belarrietara elduko dana. Orretan ziur egon naiteke. Izan be ez dakit zelan atera leikean norbait zurealako egoera batetik. Len, ori Jaungoikoaren graziak egin leikela esaten zan. Eta egia, orrelan da, baiña zuk zeure barruan zeure buruari itaundu zeinskio: Grazi edo goui-eskar ori emon ete jat niri? Edo, beste itaun au: Jaungoiko isillari otoizka ta erreguka ibilteaz lortuko ete da bizitza-aldatze ori ala ez ete da izango urrago dagoan gauza toles-bako ta berezko bat?

Emen eta orain asiko ba'ziña, gaurko eguna bizi barri baten lenengo eguna izan leiteke eta ori zeure barru-barruan asmauko dozun eguneroko egin-bear bat betetearen poza izango da. Zuk kemena ba'zeunko beti bardiña dan eguneroko egin-bear ori betetuaz, astiro-astiro, benetako zoionera elduko ziñake. Zu gauza ba'zintzake oraingo zure bizikerea ez dala bidezkoa, zuzena, konturatzeko, eta ori ikusi gura ez izatea dollorkeririk aundiena dala ikusiko ba'zenduke, zuk oitura onezko bizitza egokia asiko ba'zendu, lurreko zoriontasun onen sentipenak itxaroten egon barik, orduan, bear ba'da asiko litzake, gauza arrigarrikeri egin barik, zeure barruan eta sakon billatzen dozun aldatzea.

Zoriona non dagoan itaunduten daustazu. Nire erantzun zeatza eta arrokeri bakoa, labur-labur, auxe izan daitteke: Ez dakit. Eta gero esango neuskizu: Niretzat Jaungoikoa ulertu-eziña da, berezko eskutuki edo misterio bat eta Jaungoiko ori izan leiteke betiko zoriontasun osoa.

Zelan jakin nei nik zelango ikuspegi zeatza daukan nire zorionak? Ez daukot argitasun aundirik. Nik ori mirari bat lez ikusten dot, gauza zoragarri baten antzera, eta orregaitik ez dot bear bizitzako zorion txikien billa ibiltekeri, emen diran zorion alditxu oneik ez dodaz jainko biur-tuko, jaungoiko-izunkeri orrek len lez itziko leukez zorion-aldi txikiak, gauza ziztriñak, joankorrek eta igarokorrek diran maillan.

Jauntxuak, burgesak jautxukeriz eskatzen dautsen lez eginkizuna bete eta arreta ta ikusmiñez gauza begiratzen dodanean, azkenean, errazoidun dirala ikusiko dot. Ori ez da besterik kemenez jarraitzea baiño, lenengo guzurrezko sasi-zoriontasunak, une baterako diranak, alde batera jaurtita, zorion izena zor jakon Jaungoikoaren bidea jarraiturik.

Biotzez zure lagun.

KARL RHANER
(Letona'k euskeratua)

BETI LARRI

Munduan dagon gogorrena da danentzat dan il-bearra.
Eder zarala edo jakintsu?
Entzun: laster zara lurra.
Neska polita, mutil ederra?
Jabe izangozu arra,
ta aberatsak dirua dabe lurrean itxi bearra.

Abereak be, geienak beintzat, bildur dauz aren aurrean.
Ezagaturik euren azkena,
dar-dar dauz eriotzean.
Orretarako daukie sena eta larri dauz iltean.
Agertzen dabez agin-erpeak,
iñork illak, diranean.

Gure biotza illuna dago, misterioz bete.
Gure ta gure lortu eziña;
au bere bizikerea!
Koba illunan, dago, dirudi,
topa eziñik atea.
Etzara zu, ez, lur ontarako.
Bai latza izakerea!

Zorionaren egarria dau eta urik ez lurrean.
Erratu ein dau, galdu bidea;
billa dabil ez dagonan.
Olan mingotza dauka bizitza,
beti, gau eta egunan.
Gozotasunik ezin aurkitu,
bera bai dau erbestean.

Bildur dautsogu, zorrotz begituz,
eriotza zitalari.
Baña zergaitik? Ez dakigu zer yatorikon ilten danari.
Biotz garbia daukan kristauak,
ez dautso bildur ateri.
Onek poz-pezik dituten dautso,
lagun da eriotzari.

Olan ez balitz, errukarriok,
munduan ezer ez gara.
Obeto jaurti geure burua,
arin-arin, errekarra.
Baña, ez, lagun: geiago gara,
zerura goaz egara.
Gorputz biziuz, arima lagun,
zoriontsu goaz ara.

MATAI ARGINTXONA

BIZKAIEREAREN ASTEA (III)

Aurreko urteetan lez aurten be EUSKERAZALEAK ALKARTEA'k Bizkaierearen Astea eratzen dau, aurten irugarrena.

Illerik egokiena orrilla dala uste izan dogu eta ille onetan izango da aurten be. Eta ordua zazpi ta erdietan, ordu-bete edo ordu ta lauren inguruan amaitzeko asmoaz. Berbaldia, geienez iru ordu-lauren izango litzake eta ortik aurrerakoa alkar-izketarako.

Tokia aurten be biotz zabalez eta gogo onez emoten dauskuen Eskolapioai eskatuko dautsegu eta etxe-aldakuntzarako eregintza-lanak egiten diarduela entzun dogu, baiña ba-daukagu ziurtasuna gutzat gela bat aske izango dabela.

Izlariak eta gaiak oneik izango dira: Orrillaren 5, asteleanean Etxebarria'tar Manuel'ek erri-ipuñai buruz; Orrillaren 6'an, asteartean, Arostegi'tar Luis Aita karmeldarrak Lauaxeta'ri buruz egin dauku bere ekiñaldia; eguasteleanean, orrillaren 7'an Kerexeta'tar Jaime izango dogu izlari eta bere gaia Eusko Oñetxeak eta abizenen eta onein ikurdien arazoa; orrillaren 8'an, eguena, Euskerearen irakaskuntza gai dala, Uriarte'tar Xabier'ek azalduko daukuz bere jakingarriak eta eritxiak, eta azkenez, barikuan, orrillaren 9'an Puxana'tar Pedro izango dogu aurten be izlari, Bizkai'ko aditzaren barriak emoteko.

Ikusten danez, izlari bakoitza bere saillean berezitua da eta artu daben gaiari buruz lanak be idatzi dabez. Uste osoaz itxaron geinke ba, berbaldi entzungarriak izango dirala.

BIZKAIEREAREN III ASTEA

EGITARUA

Orrillaren 5'ean, astelena:

Gaia: **Erri-ipuñiak** (Antxiñatik etorriak).

- Edestutea.
- Ipuin oneik batzeko erak eta bideak (metodolojia).
- Ipuñien garrantzia errian.
- Itaun-erantzunak.

Izlaria: Etxebarria'tar Juan Manuel

Orrillaren 6'an, asteartea:

Gaia: **Lauaxeta'ren olerkien gizatasuna.**

- I.- Sarrera.
 - Azken bibliografia Lauaxeta'ri buruz.
 - Euskalerriko eta Europa'ko olerkarien ezagupena Lauaxeta'gan.
 - Bere asmoa olerkiak burutzean eta orrek olerki-ikuspegitik sortzen dauan arazoa.

II.- Lauaxeta'ren olerkien gizatasuna.

- Giza-agerpenak.
- Sentipena.
- Giza-irudia.
- Bereizgarri iraunkorrak.
- Non poesia.

Izlaria: Arostegi'tar Luis aita

Orrillaren 7'an, eguastena:

Gaia: **Eusko-Oñetxeak**

- Abizenen garrantzia Euzkadi'n, nondik artzen diran.
- Zergaitik eta nondik abizenen ikurdiak.
- Ikurdun etxeak zergaitik eta non.
- Ikurdiaren zatiak eta irudiak.
- Euskaldunen abizenak eta ikurdiak mundu zabalean.

Izlaria: Kerexeta'tar Jaime

Orrillaren 8'an, eguena:

Gaia: **Euskerearen irakaskuntza erdi-maillako ikastegietan**

- Elburua, irakaskuntza osoa euskeraz.
- Ikastoletan asierea.
- Erdi-maillan jarraipena.
- Ikastetxe nagusia elburu.
- Erdi-maillako egoera gaur arlo onetan.
- Zelan jokatu bear leiteken.
- Itxaropenak eta zalantzak.

Izlaria: Uriarte'tar Xabier

Orrillaren 9'an, barikua:

Gaia: **Bizkaierazko adltza**

- 1.-Aditza, izkuntzaren ardatza.
- 2.-Bizkaierearen eta Gipuzkoerearen bardintasunak.
 - Iru aberen gainean eregi izana: NOR, NORI eta NORK.
 - Adizkiaren osagaiak.
 - Aldien banaketa.
 - Aditz izenaren erabillera.
 - Aditz laguntzailleak.
 - Adizkien egitura.
- 3.-Bizkaierearen eta gipuzkoerearen ezbardintasunak.
- 4.-Aditz igarogatxa.
- 5.-Aditz iragankorra.
- 6.-Gaur bizkaieraz zelan erabilten dan aditza.
- 7.-Erririk erri aurkitzen diran ezbardintasunak.
- 8.-Aditz bakuna, sintetikoak.
- 9.-Ikako jokabidea.

Izlaria: Puxana'tar Pedro

OLAZAR'TAR MARTIN'EK

KOMIK'EN SARIKETEAK

Gure aldi onetan irudimenari indarra emoten dautsoe albiste-bideak naiz eziketa-arloko lanak. Au bearrezko gauzea zan, len adimena ta oroimena oso-osoan indartu eta irudimena baztertuta geratzen zalako baiña or arrisku aundi bat ikusten da ezibide arlorako: Jokabide orrek sortzen dauan giza-eredua ez da lengoak izan ziralakoa eta gizaldien arteko alkar ulertzea gaitxagoa izaten da eta gaiñera gizonaren barrumiñak eta griñak burubide zuzenaren menpean izatea lortzen ez ba'da, sortzen dan giza-eredua aldakorra ta gora-bera aundiak dituana izango dala. Burubidezko jokabidea iruankorragoa ta oiñarrituagoa izaten da.

Dana dala, aldian aldiko izan bear da eta irudien mundu onetara sartzea baiño beste biderik ez dago gaur, adimena ondo eratzen egin bear dan alegiña alboratu barik, al dan neurrian.

Irudien mundu onetan ezaguna da Euskalerrri osoan *Kili-Kili* aldizkariak eta beronek daroazan jokabideak izan daben eragiña, batez be gure ume ta gaztetxuak euske-rea erabilten laguntzeko asmoetan.

EUSKERAZALEAK ALKARTEA'k beti izan dau kideko KILI-KILI'ren lan ori eta gaur be kideko dau, naizta gaurko legeak emon dabezan erreztasunajk bide dirala, jokabide orrek legezko bere buru-jabetza osoa lortu izan.

KILI-KILI'ren arduradunakaz, batez be gure lankide dogun Retolaza'tar Jose Antonio'gaz alkar lana egiñik, *Euskerazaleak* komik'en sariketea eratu eban ille batzuk dirala.

Komik'a egitean gauza bi artu bear dira gogoan: Idazkia ta irudia. Sariketa onetarako gauza biak eskatzen ziran, saria irabazteko gauza biak eginda ekarri bear ziran: Idazkia irudietara egokituta eta irudiak idazkira egokituta. Eta ondoren ederra lortu dau sariketa onek, batez be irudi-saillean. Idazkiak orraztu eta zuzendu bearrerekoak dira geienak, orretarako, jakiña, idazleakaz eta marralariakaz berba eginda.

Iru sari ezarri ziran sariketa onetan: 1.^a 50.000 pezeta-koa; 2.^a 30.000 pezetakoa ta 3.^a 20.000 pezetakoa. Gai oneitan trebe diran ertilariak izendatu ziran maiko, baiña oneik arazo larri bat aurkitu eben. Lenengo saria guztiak batera dirala, norentzat izan argi ikusi arren, beste sari biak nori emon ebaztea ez zala gauza erreza. Zergaitik ori? Ba, komikak tankera ezbarriñetakoak ziralako eta tankera bakoitxaren barruan, lan guztiak bardintsuak ertilan lez ikusita. Zer egin? Zein izan urtenbidea?

Maikoak aolku au eskiñi eutsoen EUSKERAZALEAK ALKARTEA'ri. Sari bi orrein dirua moltzoratu eta sari-garriak ziranen artean banatu guztiai bardin emonaz. Sei izan dira lan sarigarriak eta amar milla pezeta sari biak osotzen daben moltzoa, orregaitik, eta zenbaki biribilla izan daiten sariena, amar milla pezeta gaiñeratu dau AlkarTEAK eta bakoitxari 6.000 pezetako saria emon, guztiak bigarren sariaren maillakotzat artuta.

Ona emen sarituen eta sarien zerrendea:

- 1.º saria: 50.000 pezeta: Ruiz eta Fernandez'tar Jesus Antonio Bilbo'tarrari
- 2n. saria: 10.000 pezeta: Diaz eta Jaiot'tar Juan Karlos Bilbo'tarrari.
- 10.000 pezeta: Torrezilla'tar Fernando Gasteiz'tarrari
- 10.000 pezeta: Fuente ta Arana'tar Ander Madrid'tarrari
- 10.000 pezeta: Gomez eta Azpiazu'tar Fernando Algorta'tarrari
- 10.000 pezeta: Donbriz eta Billasante'tar Oskar Bilbo'tarrari
- 10.000 pezeta: Diaz de Korquera'tar Juan Luis Gasteiz'tarrari

Iragarrita dagoanez, zazpi lan saritu oneik, egilleen baiezpenagaz, KILI-KILI Aldizkarian agertuko dira.

EUSKERAZALEAK ALKARTEA'k zorionik beroen opa dautse irabazleai eta biotzez eskerririk asko sariketa onetan kideko izan diran guztiai.

OLAZAR'TAR MARTIN'EK

EUSKERA ABERASTU

“BAI” oso aberatsa da bere ondorengoetan.

Bai onetara, bai orretara = ya de este modo, ya de ese otro modo.

Bai au, bai ori = tanto esto, como eso.

Bai zera!!! = ¡¡¡qué va!!!

Bai baitzat, eta ez etzatzat = que el sí sea sí, y el no sea no.

Bi baietz, iru baietz = apuesta en las pruebas deportivas.

Zu be bai-bai zara = tú también eres un incondicional, que siempre dice que sí.

Luzaro bai-edo-ez egon da gauzea = ...la cosa ha estado dudosa.

Bai-edo-ezeko gizona da ori = ...es un hombre decidido.

Il bai-ez il dago = está a punto de morir.

Baita bear ere = sí por cierto.

Jakin ez arek, baita... = vaya que lo sabía, hasta demasiado.

Baietza eta ezetza = la afirmación y la negación.

Baieztu = afirmar, confirmar.

Baiezkoa emon = dar el consentimiento, autorización.

Baimen = permiso, autorización.

Gizon jakintsuak ezkorak dira, ezjakiñak baikorrak = los sabios son pesimistas, los ignorantes optimistas.

Baikortasun = optimismo.

Etorri baietz = (apuesto) a que viene.

Etorri ezetz = (apuesto) a que no viene.

Baietz esan dau = lo ha afirmado.

Ezetz esan dau = lo ha negado.

Baita oiñez be = aunque sea a pie.

Ezta ilda be = ni aunque muera.

Len-bai-len = cuanto antes posible.

Bero-bai-bero = muy calurosamente.

Arin-bai-arin = lo más de prisa posible.

Ordu-bai-ordu = a la hora justa.

INAKI GOIKOETXEA

ZER'EN SENDIKOAI OARRA

“Zer” gure aldizkariaren 96n. zenbakia dogu oraingo au. Laster eungarren zenbakira eltzen gara ba, eta zenbaki biribil ori bide dala ospakizun bat egitea gura genduke.

Orretarako ekintza bi artzen doguz. Lenengo, 100n. zenbaki ori berezi lez argitaratu, orri geiagogaz eta idaz-lanak ugariago dauzala. Orri orreitan agertuko dogu baita orain-arte zenbat idazlek idatzi daben aldizkari onetan, euren izenak eta lanen kopurua agertuz.

Zenbaki berezi orretarako lanak gertatzeko deia egiten dautsegu bizkaieraz idazten daben idazle guztiai eta gure eskerrik beroena aurretiaz agertzen dautsegu.

Zenbaki ori agertzen dan inguruan, uda-aldian, batzar bat egingo dogu bazkari ta guzti eta batzar-

bazkari orretara deituta geratzen dira gure idazle guztiak. Lenago be egin genduan olako batzar bat eta bakoitxak bere bazkaria ordainduta izan zan, baiña oraingo onetan EUSKERAZALEAK ALKARTEA'k ordainduko dau bazkari ori, esker onaren ezaugarri lez.

Batzarrean, bazkal-aurrean, gure jokabidea ta gure lanak aztertuko doguz eta jokabide barriak artu. Guztioi entzuteko gogoz eta pozetan gagoz.

Sasoiz agertuko da batzarrera deia. Bitartean zuek idatzi zenbaki berezi orretarako lana, orrialde bi edo laukoa izan daitela al dala.

Gure agurrik beroena guztioi.

EUSKERAZALEAK
“ZER'EN ZUZENDARITZA”

ZER

Colón de Larreátegui, 14 - 2.º dcha. BILBAO-1


Gure alegiña Bizkaiarentzat da.

Gaur, beti lez, gure erriaren billaketa-lanari laguntzeko gagoz.

Gaur, aurrera joteko sasoian, itxaropena oztopoen gaiñetik jarrita,
otseintza ta laguntzarako gure gogorik onena,
barriro ta geiagotuz sortzen da.

Gaur, eta egunero, Bizkaiaren izena omentsu eta,
batez be, emoneko berba lez daroan
Aurrezki Kutxaren lana, indarra ta amesak, ez dabe utsik egingo.

Berari erantzuten jarraituko dogu.



TXURRUKA'ri oroitarria Areetan.
Itxasoaren oldarra gelditzen,
gizonaren neurribako
alegiña:

BIZKAIKO
AURREZKI KUTXA



CAJA DE AHORROS
VIZCAINA

Bizkaiko Foru Diputazioak sortu eta bultzatutako Erakundea.